# ZORTZIGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1- Nolako Jauregia kausitu zuen anaia gehienak?
2- Oharkortu zena Jauregian sartzeko? Errazue nola?
3- Jauregi barnean zer arizan zen. Erne izan zena?

## (II) 10. ZAZPI OHOINAK 3

Joan zen beraz oihanerat buruz, eta oren erdi bat gabe, kausitu zen xoragarriko jauregi baten aintzinean, eta aiphatu zur-xuri luzeari oharturik, igan zen haren gainerat.

Atxoak erran bezala, behatu zuen urrunera, eta, bat, biga, hiru, lau... zazpi ohoinak pilotan ari ikusi zituen. Haren atsegina orduan!

Jautsi zen berehala eta sartu jauregi ederrean. Heia handi batean etzanak ikusi zituen zazpi behor, bat bertzea bezen ederrak.

Etxean urrunago joan, goiti joan, eta sekulako gauza ederrak han zituen aintzinean: urhe, zilar eta harri balios, begiak lilluraturik hantxet gelditu baitzen bulta handi bat.

Bainan gero ernatu behar zela gogoraturik, ahutaraka, urhe, zilar eta diamantez hamar bat zaku edo zorro betherik, zaku hek eman zituen bi behor pullitenen gainean; eta zalukara urrundu zen, hatzik ez zezaten nehon utz, aztaparrak behorreri oihalez inguraturik.

* * *

Anaia gaztenaren harritzea, bost-pasei egunen buruan zaldi hek etxeratzean!...

## 35. UKAN - Subjonctif Imparfait

| | |
|---|---|
| Nik ukan nezan = que je l'eusse | N. ukan nitzan = que je les eusse |
| Hik ukan hezan = q. tu l'eusses | H. ukan hitzan = que tu les eusses |
| Zuk ukan zinezan = q. v. l'eussiez | Z. ukan zinitzan = que v. les eussiez |
| Harek ukan zezan = qu'il l'eût | H. ukan zitzan = qu'il les eût |
| Guk ukan ginezan = q. n. l'eussions | G. ukan ginitzan = que n. les eussions |
| Zuek ukan zinezaten = q. v. l'eussiez | Z. ukan zinitzaten = que v. les eussiez |
| Heiek ukan zezaten = q. ils l'eussent | H. ukan zitzaten = qu'ils les eussent |

**Plus que Parfait**
Ikusia ninduzun = Vous m'aviez vu

**Parfait**: Ikusia nauzu = Vous m'avez (bien) vu.

1

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Nauzu 32 Ninduzun
33. UKAN nauzu 34 UKAN ninduzun
35 Ez zezaten

### UKAN

31. Conjugaison transitive à complément direct : Pronom Personnel : Ni = me, moi

**31 Indicatif. Présent**

Zuk nauzu = vous m'avez (1)
Harek nau = il m'a
Zuek nauzue = vous m'avez (2)
Heiek naute = ils m'ont
Conj. Périp. Entzuten nauzu = vous m'entendez

**32. Imparfait**

Zuk ninduzun = vous m'aviez (1)
Harek ninduen = il m'avait
Zuek ninduzuen = vous m'aviez (2)
Heiek ninduten = ils m'avaient
Conj. Périp. Entzuten ninduzun = vous m'entendiez

**33. Passé composé**

Zuk ukan nauzu = vous m'avez eu (1)
Harek ukan nau = il m'a eu
Zuek ukan nauzue = vous m'avez eu (2)
Heiek ukan naute = ils m'ont eu
Conj. Périp. Behatu nauzu = vous m'avez regardé

**34 Passé simple**

Zuk ukan ninduzun = vous m'eûtes
Harek ukan ninduen = il m'eut
Zuek ukan ninduzuen = vous m'eûtes
Heiek ukan ninduten = ils m'eurent
Conj. Périp. Ikusi ninduzun = vous me vîtes